

KANTU HERRIKOIAK BARNETIK (hastapena)

Irakaslea

THIERRY BISCARY, abeslaria eta ekoizlea. Kalakan taldean partaide izandakoa, 2002an Ipar Euskal Herriko eskoletan hasi zen musika ikastaldiak ematen Kristof Hiriart eta Lagunarte konpainiaren zuzendaritzapean. Lan horri esker ohartzen da transmisioaren garrantziaz. Besteek ikasi diotena irakasten hasten da: kantua, txalaparta, edo joaldunen teknikak. Orduz geroz, musika proiektuetan parte hartzen duela, mami artistikoari eta funtsezko zentzuari kasu berezi bat ematen dizkio. Unibertso ezberdin bezain aberasgarri horietan lan eginez, beti oinarrizko abiapuntura itzuliko da: musika herrikoa eta bereziki ahots hutsezko kantua, soila edo polifonikoa. 2018an bere lehen lana *Manez eta Kobreak* plazaratu ondoren, 2020an, bere bigarren albuma, *Muda*, argitaratu zuen. Bestalde musika eta kantu tailerrak Gipuzkoan eskaintzen ditu. Azkenik, *Kalapita* produkzioak enpresarekin, ekoizpen lanak egiten ditu Euskal Herriko beste artista batzuentzat.

Deskribapena eta helburuak

- Kantu herrikoiak ikasi eta interpretatu.
- Zergatik eta zertarako kantatzen dut. Kantu herrikoa nori, noiz eta nola eman.
- Kantaldi bat elkarren artean preparatu.

Nori zuzendua

Kantariei eta hasierako ikastaroa egin dutenei zuzendua.

Egitaraua

- Parte hartzaileen helburuak eta nahikeriak zehaztu. Kantu herrikoiak kantatu
- Parte hartzaileek ekarritako kantuak entzun, kantatu eta batzuk ikasi
- Kantuen interpretazioa. Letren erran nahiak aipatu eta hitzekin nola jolasten ahal den
- Kantugintza munduan zehar. Kantuak entzun eta ariketa batzuk egin
- Non kantatzen dut. Kantuaren espazioak zehaztu eta espazio ezberdinetan kantatu
- Nori kantatzen diot. Kantuen hautaketa zehaztu, ariketak eta jolasak
- Kantu bat nola eginga da. Doinu bat nola inprobisatu, kantu bat sortu,
- Kantaldi bat preparatu parte hartzaile bakoitzak ekarritako kantuekin

Data-ordutegia

X 17 – XII 19

Astelehena 19:00-21:00

Hizkuntza

Euskara

Oharra

- Matrikularen zenbatekoan ez da ikastaroko materiala sartzen, eta ikastaroa egin bitartean behar izan daitezkeen bestelako materialak ikastaroko ikasleek emango dituzte. Ikastaro batzuetan, Donostia Kulturak hasierako oinarrizko materiala jarri ahal izango du.